



GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA

Federación Guipuzcoana de Montaña

FEDERA ZAITEZ

HAMAIKA ARRAZOI DITUZULAKO!

Segurtasuna

Edozein kirol egiterakoan, ez da ahaztu behar segurtasuna dela kontuan izan beharreko alderdirik garrantzitsuenetakoa. Federazio lizentziaren balio nagusia da harekin batera etortzen den aseguruia.

Federazioaren aseguruia istripu aseguruia da, mendizaletasuneko edozein jarduera egitean gertatzen diren istripuak estaltzen ditu, betiere hautatzen den estalduraren barnean sartuta egonez gero. Istripuetarako soilik da aseguru hau, ez ditu estaltzen kirol jardunarekin loturarik ez duten beste motibo edo goera batzuegatik sortzen diren lesioak.

Prestakuntza

Federazio lizentzia izateak aukera ematen du Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak (eta beste eskolek) antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzeko. Ikastaro horiek izan daitezke hasi oinarrikoenetatik- GPSaren erabilera- eta teknikoenetaraino, mendian segurtasuna areagotze aldera eta mendiaz gehiago gozatze aldera, betiere.

Informazioa

Federazio lizentziarekin batera, Euskal Mendizale Federazioak argitaratzen duen Pyrenaica aldizkari ospetsua jasoko duzu. Mundu guztiko mendien gaineko artikulua ekarri ohi ditu, eta irteerak prestatzeko lagungarri izango duzu.

Prezio bereziak eta deskontuak

Federazioak hainbat saltokiren laguntza dauka, non prezio bereziak egingo dizkizuten; mendiko aterpeetan ere deskontu handiak lortzen dira. (Broker's, Sua Edizioak/Elkar, Izadi Kirolak, Belharra).

Lehiaketak

Federatuek aukera daukate eskalada, mendi eski eta mendiko lasterketetako lehiaketetan parte hartzeko, eta egutegi ofizialean lehiatuko diren taldeetan aritzeko hautatuak izateko.

Laguntza teknikoa senderismoan eta ingurumenean.

Federazioak senderismo eta ingurumen teknikariak dauzka, arlo horietako edozein zalantza argitzeko. Zerbitzu horien helburua da kirol elkarten beharrei erantzutea bidezidorrak homologatzeko, eta ingurumenean aholkularitza ematea.

Federatuek dira gure federazioaren oinarria, eta giza talde handia osatzen dute, pisu handia duena guztion interesak defendatzerakoan administrazio publikoen edo bestelako erakundeen aurrean.